



# **GOBERNU BILERA**

Prentsa-Txostena  
Erabaki nagusiak

## **CONSEJO DE GOBIERNO**

Dossier de Prensa  
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2019ko maiatzak 21**

**Vitoria-Gasteiz, 21 de mayo de 2019**

## Gobernantza Publiko eta Autogobernu

### EUSKO JAURLARITZAK EGUNERATU EGIN DU LANPOSTUEN ZERRENDA, 4,5 MILIOI EUROREN BIDEZ EUSKAL LANGILE PUBLIKOEN ORDAINSARIAK HOBETZEKO

- Horrela, 436 lanposturen balorazioa eta ordainsaria eguneratzeko “*Euskadiko Administrazio Orokorreko Mahai Sektorial*”eko sindikatuekin sinatutako [akordioa](#) betetzen da
- Akordioak atzeraeraginezko ondorioak ditu, 2010eko urtarrilaren 1etik, eta onuradunek atzerapenak bi ordainketatan jasoko dituzte, bi pagotan, 2019ko azaroan eta 2020ko maiatzean

Gobernu Kontseiluak, gaur, sailetako eta erakunde autonomoetako lanpostuen zerrenda aldatzea onetsi du, pasa den apirilaren 2an “*Euskadiko Administrazio Orokorreko Mahai Sektorial*”eko gehiengo sindikalarekin sinatutako [akordioa](#) betetzeko. [Akordioaren](#) bidez, 436 lanpostu eguneratuko dira, atzeraeraginezko ondorioekin, 2010eko urtarrilaren 1etik; 4,5 milioi euroko ordainsari-hobekuntza.

Euskadiko Administrazio Orokorrean ordezkariak duten 4 sindikatuak 3ekin (LAB, CCOO eta UGT) sinatu da [dokumentu](#) hori, eta, horren bidez, amaiera ematen zaio hiletan zehar Eusko Jaurlaritzaren eta zentral sindikalen artean Lakuako lanpostuen zerrenda antolatzeko eta eguneratzeko izan den negoziazioari.

- 368 postu Euskal Administrazio Orokorreko lan-kontratudun langileenak.
- 22 postu Euskal Administrazio Orokorreko funtzionarioenak.
- 46 lanpostu lehengo “Itsasmendikoi” sozietate publikokoak; sozietatea HAZIrekin fusionatu zen, Euskadiko Landa, Itsasertz eta Elikagaien Sustapenerako sozietate publikoarekin.

## AZAROA

Lanpostuen zerrenda aldatuta, Gobernuak, orain, hurrengo urratsak emango ditu, ordainsarien igoeren lehen ordainketa eraginkorra izan dadin, datorren azaroan. Gobernuak eta sindikatuek pasa den apirilaren 2an mahai sektorialean adostu zuten, bigarren ordainketa 2020ko maiatzean izango da.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

**EUSKO JAURLARITZAK 19,3 MILIOI EURO ESKAINTZEN DIZKIE  
JARDUERA HEZIGARRIEI ETA ENPLEGUAREN SUSTAPENARI,  
LANBIDEAREN BIDEZ**

- 3 milioi euro langabeei zuzenduriko eta parte-hartzaileak kontratatze konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetara
- 2,3 milioi euroko finantzazioa eskainiko dio HEZIBI, Lanbide Heziketa alternantzia egitea sustatzen duen gazteentzako programari
- 10 milioi euro bideratu ditu enplegua sustatzeko tokiko ekintzetara, eremu eta udalerrri ahuletarako bereziki: Ezkerraldea, Meatzaldea eta Oarsoaldea.
- 4 milioi euro bideratu ditu lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako Proiektu Berezien garapena sustatzera

Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak, Lanbideren bidez, 19,3 milioi euro bideratzen ditu, azken urtean abian jarritako ekimenekin bat egiten duten okupatu eta langabeentzako prestakuntza-jardueretara eta enplegua sustatzera.

Gaur goizean Iñigo Urkullu Lehendakaria izan da Gobernu Kontseiluko buru, eta, Beatriz Artolazabalek bertan zehaztu duenez, honako hauek dira helburu: kontratatze konpromisoa duten prestakuntza-ekintzak, langile langabeei zuzenduriko; gazteentzako prestakuntzarako eta ikas-ekinezko lanerako HEZIBI programa; bereziki gune eta udalerrri ahuletan enplegua sustatzeko ekintzak; eta enplegura jotzeko edo horretan mantentzeko zailtasunak dituzten langile okupatuentzako eta langabeentzako gizarteratze- eta laneratze-proiektu berezien garapena.

➤ **Lanbide 3 milioi euro biderako ditu, langabeei zuzenduriko eta parte-hartzaileak kontratatze konpromisoa duten prestakuntza-ekintzetara**

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburu Beatriz Artolazabalek Lanbideko Administrazio-kontseiluaren akordioa azaldu dio gaur Gobernu Kontseiluari. Euskal Autonomia Erkidegoko langabeei zuzenduriko eta **parte-hartzaileak kontratatze konpromisoa duten prestakuntza-ekintzentzako** diru-laguntzen deialdia onartu du, aipatu akordioak, 2019. urterako. Lanbide 3 milioi euro esleituko ditu xede horretarako.

Diru-laguntza hauen xedea Euskal Autonomia Elkargoan lantokia duten enpresak eta ekintzaren eskaria aurretik akreditatuta zeuden edo izena emana zuten prestakuntza-entitate pribatuak edo publikoak dira. Onuradun nagusiak, ordea, **Lanbiden** izena eman duten langabeak dira.

Ikasleek doan egingo dituzte prestakuntza-ekintzak, **Euskal Enplegu Zerbitzuak** diruz laguntzen baititu. Europako Gizarte Funtsak ere neurri honen finantzazioan parte hartzen du.

➤ **Lanbidek 2,3 milioi euroko finantzazioa eskainiko dio HEZIBI, Lanbide Heziketa alternantzia egitea sustatzen duen gazteentzako programari**

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailburu **Beatriz Artolazabalek** Lanbideko Administrazio-kontseiluaren akordioa azaldu dio gaur Gobernu Kontseiluari. Akordioaren bitartez, **Lanbidek 2,3 milioi euroko finantzazioa emango dio HEZIBI, Lanbide Heziketa alternantzia egitea sustatzen duen gazteentzako programari.**

Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak eta Hezkuntza Sailak sustatu duten programa hau era esanguratsuan hazi da azken hiru urteotan. 2016. urtean, honela, 539 onuradun izan zituen programak. Kopuru hori bikoiztu egin zen 2018n, Hezibi ekimenaren diru-laguntza jaso eta heziketa dualean kontrataturiko pertsonak 1.006 izan baitziren. 2017. urtean 648 izan ziren.

HEZIBI ekimenaren **ereduak Lanbide Heziketa alternantzia egitea** sustatzen du. Lanbide Heziketako ikasleei eta gazte langabeei zuzendua dago eta xedea da beren gaitasun profesionalak hobetzea, profesionaltasun ziurtagiri bat edo Lanbide Heziketako titulu bat lortuz eta, bien bitartean, ordaindutako lana eginda enpresa batean. Honela, egokitzapen edo oreka hobea sustatzen da enpresen beharren eta langileek eskuratzen dituzten gaitasunen artean. Ekimenak, horrenbestez, enplegu- eta prestakuntza-ekintzak bultzatzen ditu lan-eskarmentuaren arloan, beste ikastun batzuk ahalbidetzen baititu enpresen testuinguruan.

**16 eta 30 urte bitarteko** pertsonen zuzenduta dago programa, desgaituen edo gizarte-bereizkeria pairatzen duten taldeetako pertsonen kasuan salbu, aipatu horiei ez baitzaie inolako adin-mugarik aplikatzen. Guztiek ere, aldezturik Lanbide izena eman beharko dute.

**Gutxieneko iraupena urtebetekoa da; gehienekoa, 3 urtekoa.** Zentzu horretan, lanean emandako denborak ezingo du lanaldiaren % 75aren gainetik egon kontratuaren lehen urtean: denboraren % 25a prestakuntzari eskainiko zaio, gutxienez. Bigarren eta hirugarren urtean, lana-prestakuntza erlazioa % 85-% 15 izango da.

Parte hartzen duten **enpresek** 2.000 € jasoko dituzte kontratatutako pertsonen kontratu-urteko eta aipatu kontratuek lanaldi osokoak izan beharko dute.

➤ **Lanbidek 10 milioi euro bideratu ditu enplegua sustatzeko tokiko ekintzetara, eremu eta udalerrri ahuletarako bereziki: Ezkerraldea, Meatzaldea eta Oarsoaldea**

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailburu **Beatriz Artolazabalek** Lanbideko Administrazio-kontseiluaren akordioa azaldu dio, gaur goizean, Gobernu Kontseiluari. Akordioaren eskutik, Lanbidek **10 milioi euro bideratuko ditu, guztira, enplegua sustatzeko tokiko ekintzak martxan jartzera, gehienbat eremu eta udalerrri ahuletarako.**

Lanbide erakunde autonomoak bere babes eskainiko du enplegua sustatzea xede duten Euskal Autonomia Erkidegoko tokiko erakundeetako proiektuak martxan jartzeko, eremu eta udalerrri ahuletan bereziki. Europar Batasunak *Ahultzat* jo dituen eremuetako eta langabezia-tasa **bereziki kezkarria** agertzen duten eremuetako **tokiko erakundeei** zuzenduriko laguntza ekonomikoak dira eta xedea da enplegua sortzea helburu duten proiektuak martxan jartzea.

Programak **bi udalerrri mota** bereizten ditu. Alde batetik, 5 milioi euro bideratuko dira Talka Plana delakoan sarturiko eremuak eta udalerrriak jomuga dituzten ekintzetara. Ondokoak dira, hain zuzen ere: **Ezkerraldea, Meatzaldea eta Oarsoaldea**. Eta beste 5 milioi bideratuko dira langabezia-tasa bereziki kezkarria duten eskualde eta udalerrietara: 2018ko abenduan % 11tik gorako langabezia-tasa erregistratua zuten horiek dira.

Bi ekintza-eredu ezberdin bultzatu nahi dira aipatu bi eremuetan:

- **Enplegua sustatzeko** helburuarekin, lan-merkatu sartzeko zailtasunak dituzten pertsonen enplegarritasuna sustatzeko helburuarekin ezohiko merkatuan egindako kontratazioak sustatuko dira, pertsona horien kualifikazioa eta/edo gaitasun pertsonalak eta motibazioa sendotuz honela.
- **Kontratazioa bultzatzeko laguntzak**, Lanbiden lan-eskatzaileria gisa izena emanda duten langabeen kontratazioa errazteko, ohiko merkatuan, tokiko enpresen aldetik.

2019. urtean **1.149 pertsonen kontratazioa** sustatzea espero da, **guztira**. Talka Planean sartutako eremuetan, **425** langabe kontratatutak izan zitezkeen enplegua sustatzeko laguntzen bitartez eta beste **86** kontratazioa bultzatzeko laguntzen bitartez. Langabezia-tasa bereziki kezkarria duten eskualde eta udalerritan, enplegua sustatzeko lehen lerroak **351** kontratu susta zitezkeen; kontratazioa bultzatzeko laguntzek, beste **287** gehiago.

➤ **Lanbidek 4 milioi euro bideratu ditu lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako Proiektu Berezien garapena sustatzera**

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailburu **Beatriz Artolazabalek** Lanbideko Administrazio-kontseiluaren akordioa azaldu dio gaur Gobernu Kontseiluari. Akordio horren bitartez, lana duten langileei eta lana lortzeko edo hari eusteko zailtasunak dituzten pertsona langabeei zuzendutako **Proiektu Berezien garapena sustatzeko diru-laguntzen deialdia** onartu du Lanbidek. Erakundeak 4 milioi euro esleitu ditu xede horretarako.

Diru-laguntzen xedea da **proiektu bereziak finantzatzea**. Aipatu proiektuek **prestakuntza-, orientazio-, enplegu-ekintzak** edo beren partaideen enplegarritasuna era esanguratsuan hobetzen duen beste edozein neurri konbinatzen dituzten horiek dira.

Ondokoek eskatu ahal izango dituzte diru-laguntzak: Foru **Aldundiak** eta Foru-sektore Publikoa; Erkidegoko **Udalak** eta tokiko sektore publikoko Entitateak; EAeko sektore publikoko entitateak; EAeko Tokiko edo Eskualdeko **Garapenerako Agentziak** eta horiekin lotutako elkarteak; Lanbide Heziketako erakundeen dagokion erregistroan inskribatutako edo-eta akreditatutako **irabazi-asmorik gabeko prestakuntza-erakunde pribatuak**; Hezkuntza Sailaren edo Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren mende dauden **prestakuntza-erakunde publikoak**; **EAEn egoitza edo ordezkaritza duten entitateak**, baldin eta horien merkataritza-jarduera **xede sozial** baten mende badago, lehentasunez, eta azken hamar urteetan bere irabazien % 70 xede sozial horiek lortzean inbertitu badute; **aldi baterako enpresa-elkarteak**; eta zuzenbide publikoko partzuergoak.

## Enplegua eta Gizarte Politikak

**GOBERNU KONTSEILUAK 43.500 EUROKO DIRU-LAGUNTZA ZUZENA BAIMENDU DU, EUSKADIKO GURUTZE GORRIAREN ALDE, IRAGAITZAZKO MIGRATZAILEENTZAKO LARRIALDIKO ALDI-BATERAKO HARRERA-ZERBITZUAK KUDEA DITZAN**

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailburu Beatriz Artolazabalek proposatuta, **Euskadiko Gurutze Gorriari** 43.519 euroko diru-laguntza zuzen bat ematea onartu du gaur Gobernu Kontseiluak. Diru-laguntzaren xedea da **Euskadin iragaitzaz dauden migratzaileen oinarrizko beharrak asetzea helburu duen harrera-programa osagarri bat kudeatzea**. Gehienbat Erdialdeko Europa eta Ipar Europa jomuga duen migrazio-prozesu batean murgilduta daude aipatu pertsonak.

lazko ekaina eta abendua bitartean, **Euskadiko Gurutze Gorriak** iragaitzazko **6.500 migratzaile** artatu zituen, guztira, Bilbo, Donostia, Vitoria-Gasteiz eta Irunen.

Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailak, Eusko Jaurlaritzako beste sail batzuekin, Arabako, Gipuzkoa eta Bizkaiko foru aldundiekin eta Vitoria-Gasteiz, Bilbo, Donostia eta Irungo udalekin batera, elkarrekin dihardute lanean eta arreta humanitarioko sistema bat aktibaturik daukate talde horren **oinarrizko** elikadura-, ostatu-, osasun- eta logistika-**beharrak** ase ahal izateko.

Eusko Jaurlaritzak, halaber, erakunde-bilera eta -harreman ugari izan ditu, iazko ekainaz geroztik, Estatuko Gobernuarekin, beste Autonomia Erkidego batzuekin eta Batasuneko eskualde ezberdinekin, Bruselako Europako Batzordearen Migrazioen Zuzendaritza Nagusiarekin eta Eskualdeetako Lantaldearekin, ahalik eta koordinaziorik handiena bermatzeko gai honi dagokionez.

Ondokoak dira programa honen funtsezko helburuak: migratzaileak beren beharretara hobekien egokitzen den **egituran** artatu ahal izatea, oinarrizko **jakiak, higiene-osagaiak eta sendagaiak** izatea arreta humanitarioa eskaintzeko xedearekin antolatutako egituretan, detektatutako beharrei erantzunik onena emango dieten bitartekoak eta azpiegiturak izatea edo identifikatutako arazoei erantzunik aproposena emateko **gauza diren pertsonak** izatea.

Euskadiko Gurutze Gorriak hiru Euskal Lurralde Historikoetan egiten du lan: elkarriketak eta balorazioak egiteko eta migratzaileak larrialdiko gaueko aterpetara, jantokietara eta beste arreta-egitura batzuetara igortzeko ardura duen **profesional-talde** batez baliatzen da horretarako.

Ondoko pertsonak dira arreta humanitarioko jarduketa honen jomuga: narriatze fisikoaren eta gizarte-, familia-babesaren eta bitarteko ekonomikoen faltaren ondorioz gizarte-egoera ahulean dauden iragaitzazko migratzaileak, penintsulako hegoalderaino iritsi ondoren edo gizarte- eta osasun-izaerako arrisku larriak dakartzaten kokagunetan bizi badira eta agertzen dituzten arazoei aurre egin ahal izateko berehalako ekintza-programen beharra dutenean.

2018ko azaroan Estatuko Gobernuak 32.661.572,33 euroko diru-laguntza zuzena eman zion Espainiako Gurutze Gorriari, Espainiako kostaldera iritsitako migratzaileak arta zitzaizkien. Estatu-mailako laguntza horren parte proportzional bat **Euskadiko Gurutze Gorriari** dagokio.



## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### **UDALENTZAKO LAGUNTZAK, HIRIGINTZAKO UDAL PLANETAN GENERO IKUSPEGIA SARTZEKO**

Gobernu Kontseiluak Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren agindua onetsi du; horren bidez, hirigintza inklusiboari buruzko laguntzen deialdia deitu da; helburua da genero-ikuspegia sartzea udal-plangintzan eta -hirigintzan, eta, besteak beste, gizonek eta emakumeek lurraldeko baliabide eta ekipamenduetara sarbide-aukera bera dutela eta espazio publikoetan emakumeen segurtasuna areagotzen dela bermatzea.

Udalentzako laguntzek, guztira, 200.000 euro dituzte, eta udal hirigintza-planetan genero-ikuspegia eraginkortasunez integra dadin dute helburu, lehentasunezko ekintzakoak diren lau arlo tematikoren inguruko ekintza estrategikoen bidez: lurralde-antolamendua eta hirigintza, mugikortasun jasangarria, landa-eremua edo gobernantza.

Genero-desparekotasunak daude, bai ekipamendu eta zerbitzuak erabiltzeko beharrean, bai horietara sartzeko aukeran. Hori dela eta, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren iritziz, genero-ikuspegia hirien diseinuan sartzea funtsezko tresna da, gizon eta emakumei baliabide guztietara baldintza-berdintasunean jotzen dutela bermatu ahal izateko.

Jarduketa-eremuetan antzeman diren desparekotasunak aztertu ondoren, neurri zehatzak hartu behar direla ondorioztatu da. Neurri horien bidez, besteak beste: espazio publikoan emakumeen segurtasuna hobetzen lagunduko da, eta, horretarako, puntu beltzak kendu eta eraikin eta espazio publiko diafano eta seguru berriak diseinatuko dira; etxeko lana eta pertsonak zaintzeko lana egiteko eta norberaren bizitza, familia eta lana uztartzeko bide ematen lagunduko da, eta, horretarako, “zaintzaren hirigintza” sustatuko da; eta mugikortasun-planetan gizon eta emakumeek egiten duten garraio publikoaren erabilera jasotzen lagunduko da. Halaber, lagundu egingo da etxebizitzetara ekipamenduak hurbiltzeko aukera ematen; horretarako, ekonomia- eta egoitza-jardueraren erabilera mistoko espazioak diseinatuko dira. Eta joan-etorrietako denborak laburtzen ere lagunduko da, bai eta emakumeek herritarrek parte hartzeko prozesuetan eta hirigintza-plangintza horiek diseinatzeko eta gauzatzeko ekipo teknikoetan parte-hartze handiagoa izatea sustatzen ere.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera. Genero-ikuspegia duten dokumentuak prestatzeko beharrezko laguntza teknikoa kontratatzeko gastuak finantzatuko dira, gehienez 20.000 euroan, udal bakoitzeko. Ezingo dira dirulaguntza horien onuradun izan aurreko ekitaldietan lan berretarako adjudikaziodun izan diren erakundeak, berriaz uko egin ezean.

## Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza

### UDALERRIEN MAPAK ETA KALE IZENDEGIAK EGITEKO ETA GERO ZABALTZEKO LAGUNTZAK

Gobernu Kontseiluak oniritzia eman dio Iñaki Arriola Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburuaren aginduari; horren bidez, Euskadiko udalei informazio geografikoa hobetzeko, udal-mapak egiteko eta gero zabaltzeko diru-laguntzak emateko deialdia egin da.

Laguntza-programa hori 200.000 eurokoa da eta helburu du udal-informazio geografikoaren kalitatea hobetzea eta, horretarako, interes orokorreko datuak bildu eta digitalizatzea eta web-orrialdeetan argitaratzea; hala ere, mapa, gero, paperean argitaratzea hautatu ahalko dute udalek.

Diru-laguntzen bidez, nolahi ere, udal-mugarteko mapa digitala egiteko gastuak ordainduko dira, alegia, mapa topografiko batean tradizioan adierazten diren elementu guztiak batu, berrikusi eta kokatzeko gastuak; gainera, gutxienez, toponimia, kale-izendegia eta interes publikoko zerbitzuak, instalazioak eta hiri-elementuak barne.

Udal-webak informazio hori argitaratzeko erakundearen mapen bisorea erabiliko du edo, bestela, [www.geo.euskadi.eus-en](http://www.geo.euskadi.eus-en) mapa-bisorea berrerabiliko du; hura Lurralde Plangintza, Hirigintza eta Hiri Berroneratze Zuzendaritzaren mende dago eta udal-webaren barruan kapsulatzeko gaitasuna du.

Ezingo dira diru-laguntza horren onuradun izan aurreko hiru ekitaldietako batean (2016, 2017 edo 2018) diru-laguntzaren esleipendun izan diren erakundeak, berriaz uko egin ezean. Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

## Hezkuntza

### **DEKRETUA, HIZKUNTZA ESKOLA OFIZIALETAKO IRAKASKUNTZAK ETA HORIEN CURRICULUMAK EZARTZEN DITUENA**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, Dekretu berri bat onartu du gaurko bileran. Dekretu honek EAEko araubide bereziko hizkuntza-irakaskuntzak (Hizkuntza Eskola Ofizialetakoak) ezartzen ditu, irakaskuntza horietako Oinarrizko mailaren (A1 eta A2), Tarteko mailaren (B1 eta B2) eta maila Aurreratuaren (C1 eta C2) curriculumarekin batera.

Dekretu berriak datorren 2019-2020 ikasturtetik aurrera dakartzan berritasun nagusien artean, nabarmentzekoa da B2 maila bi ikasturtetan banatuko dela aurrerantzean (orain arte ikasturte batean egiten zen). Aldi berean, B1 maila ikasturte bakarrean garatuko da (orain arte bi ikasturtetan egiten zen). Era horretan, Tarteko mailak hiru ikasturte izaten jarraituko du, baina B2 maila indartuta.

Bestalde, ikasleak ebaluatzeko aintzat hartzen diren ohiko gaitasunei (testu idatziak ulertzea; testu idatziak sortzea; ahozko testuak ulertzea; eta ahozko testuak sortzea) beste bat gehitzen zaie: bitartekotza. Gaitasun honek hirugarrenekin hizkuntzaren erabileran elkarreragiteko gaitasuna neurtzen du. Gaitasun hau B1 mailatik aurrera neurtuko da, betiere dagokion maila aintzat hartuta.

Aipatzekoa da, halaber, arau berriak mailen izendapenean dakarren aldaketa txikia. Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua ez da aldatzen (A1, A2, B1, B2, C1 eta C2 izaten jarraitzen dute), baina orain arte C1 mailarentzat erabili izan den "Gaitasun" izendapena desagertu egiten da, eta maila guztiak hiru izendapen hauetan multzokatuta gelditzen dira: Oinarrizkoa, A1 eta A2 mailentzat; Tartekoa, B1 eta B2 mailentzat; eta Aurreratua, C1 eta C2 mailentzat.

Dekretu berri hau indarrean sartzearekin indargabetu egingo da egungo 46/2009 Dekretua, otsailaren 24koa.

## Hezkuntza

### **VITORIA-GASTEIZKO UDALAREKIN ESPARRU HITZARMENA, ELKARBIZITZAN ETA EKITATEAN OINARRITUTAKO HEZKUNTZAREN ALDE ELKARLANEAN JARDUTEKO**

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, oniritzia eman dio gaurko bileran Hezkuntza Sailaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko esparru hitzarmena sinatzeari, elkarbizitzan eta ekitatean oinarritutako hezkuntzaren alde elkarlanean jarduteko.

Esparru hitzarmen honek, erakunde biek 2019ko martxoaren 18ko Asmo Protokoloaren bidez harturiko konpromisoak betetzea esan nahi du, eta honako xede hau du: Vitoria-Gasteizko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren arteko lankidetzaren sistema bat antolatzea, urte anitzekoa, interes komuneak diren jarduerak zehazteko eta koordinatzeko, Vitoria-Gasteizko udalerrian hezkuntza-ekitatea sustatzeari begira.

Pauso berri honen ondoren, bi erakundeak Berariazko Hitzarmen bat lantzen ari dira orain, hurrengo ikasturterako, ekintza zehatzak eta lankidetzan oinarritutako ekimenak garatze aldera.

## Osasuna

### **EUSKO JAURLARITZAK 300.000 EURO BIDERATU DITU GAIXOEK ETA BEREN FAMILIEK ERATZEN DITUZTEN ELKARTEETARA**

- **laz, guztira, 118 proiekturi eman zitzaizkien dirulaguntzak; proiektu horien bidez, kolektibo horren bizi-kalitatea hobetu nahi da**

Eusko Jaurlaritzak, gaur, Osasun Sailak proposatuta, gaixoek eta beren familiek eratzen dituzten eta horien bizi-kalitatea hobetzeko irabazi-asmorik gabeko gizarte-ekimeneko elkartei zuzendutako laguntzen deialdia ezartzen duen agindua onetsi du. Laguntza horien zenbatekoa, guztira, 300.000 euro dira.

Honako jarduketa hauek izango dira dirulaguntzaren helburu:

a) Gaixotasunen bat duten pertsonen kolektiboek laguntzea trebetasun eta baliabideen garapenean, beren autozaintzako gaitasuna eta autonomia areagotzeko.

b) Eraginpean dauden pertsonen behar soziosanitarioetan ikuspegi salubristatik, osasuna sustatzeko ikuspegitik eta xede komunitarioekin laguntzea eta horiek bideratzea.

c) Gaixotasunaren eraginpean dauden pertsonetan eta beren familiarakoetan gaixotasunari buruzko, gaixotasunaren arrisku-faktoreei buruzko eta osasun-jokabide egokienei buruzko ezagutza eta informazioa areagotzea.

d) Eraginpean dauden pertsonen osasunean dauden desparekotasunak eta desegokitasunak murriztu eta genero-ikuspegia sartzea.

laz, 118 proiekturi eman zitzaizkien guztira dirulaguntzak. Deialdia urtero berritzen da, Osasun Planean eta Osasun Publikoaren eta Adikzioen Zuzendaritzaren Osasuna Sustatzeko Programan ezarritako helburuak kontuan hartuta.

Osasun Sailak bereziki balioetsi du elkarte horiek gaixoen eta beren familiarako osasun fisikoari, psikologikoari eta sozialari eginiko ekarpena, besteak beste, honako gai hauetan: gaixotasunaren errealitate sozialarekiko eta afektiboarekiko harreman zuzena eta zerbitzuak emateko asistentzia zuzena eta enpatikoa eta autolaguntzarako programak.

## Osasuna

**OSASUN SAILAK, AURTEN, 108.000 EURO BIDERATU DITU, OSASUN ARLOKO PROFESIONALEN PRESTAKUNTZARAKO BEKA ETA LAGUNTZETARA**

Gobernu Kontseiluari Nekane Murga Osasun sailburuak onetsitako aginduaren berri eman diote gaur; agindu horren bidez, 2019. urtean osasun-arloko profesionalen prestakuntzarako beka eta laguntzak deitzen dira, 108.010 euroan.

Laguntza-lerro hori Osasun Sailaren estrategian dirulaguntza jaso dezaketen jarduera-arlo nagusietako batean sartzen da. Haren helburua da osasun-arloko langileen gaikuntza areagotzea beren lanbide-praktikan, eta, gerora, osasun-kudeaketaren eremuan sartzeko -bai zentro publikoetan, bai pribatuetan-kudeaketan prestatuko diren profesional berriak sortzea.

Horrela, beka eta laguntzak emango dira, batetik, ikastaroetara joan eta atzerriko zentroetan egonaldiak egiteko, osasun-zientzien eremuan ezagutzak areagotzeko. Eta, bestetik, honako lau eremu hauetan gaitasun aurreratuak eskuratzeko Estatuko zentroetan graduondoak egiteko: osasun-kudeaketa, osasun publikoa, zainketa aringarriak eta familia-medikuntza eta medikuntza komunitarioa.

Eskabideak aurkezteko hilabeteko epea dago, EHAAan agindu hau argitaratu eta biharamunetik aurrera zenbatzen hasita.

## Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

### 2019KO LURRALDEKO TURISMO-PROIEKTUETARAKO LAGUNTZAK

Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailak Euskadiko jomugen erakargarritasuna eta kalitatea hobetuko duten eta turismo-fluxu berriak dinamizatu, banatu eta sortuko dituzten turismo-proiektuak garatzeko laguntzen deialdia egin du.

Laguntzak hiriburu- eta eskualdeko turismo-lankidetzako entitateetan sartuta ez dauden udalerrietako turismoaren sustapenez arduratzen diren erakunde publikoentzat dira (udal-entzat, tokiko erakunde autonomoentzat, tokiko enpresa-erakunde publikoentzat eta titulartasun publikoko merkataritza-sozietateentzat).

Laguntzak, halaber, eskualdeko edo eskualdez gaindiko eremu batean turismo-lankidetzako entitate gisa edo turismo-produktuen entitate kudeatzaile gisa diharduten irabazi-asmorik gabeko erakunde publiko edo pribatuek eska ditzakete (kuadrilla eta mankomunitateek, garapen-agentziek, landa-garapeneko elkarteek, partzuergoek eta beste entitate eta elkarte batzuek).

Laguntzen zenbatekoa 1.360.000 euro da, eta Euskadiko jomugen erakargarritasuna eta turismo-esperientzia hobetzeko lurraldeko turismo-proiektuetara eta jomugen kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko proiektuetara bideratuta daude. Haien artean, jardunbide egokien programak azpimarra daitezke).

Interesatuak hilabete bateko epea dute eskaerak aurkezteko, buletinean argitaratu ondorengo egunetik hasita. Eskaerak modu telematikoa egingo dira Euskadi.eus webgunean.

## Turismo, Merkataritza eta Kontsumo

### **DEIALDIA EGINA MERKATARITZAKO BEKEN PROGRAMA “RETAIL TRAINING” BEKEN PROGRAMA MERKATARITZAKO BANAKETAREN KUDEAKETA-TEKNIKARIAK PRESTATZEKO**

Gobernu Kontseiluak onetsi egin du “Retail Training” Merkataritzako Beken Programa 351.940 euroko aurrekontuarekin. Unibertsitate-tituludunei eta titulazio teknikoei zuzendutako beka dira, Marketina eta Publizitatea edo Salmenten eta Merkataritzako Guneen Kudeaketa arloetan.

Programak 29 beka eskaintzen ditu eta helmugaren arabera –nazionala edo nazioartekoa– emango dira, eta 11.250 eurotik 18.450 eurora artekoak izango dira zenbatekoak. Bekek aukera ematen dute elkarren segidako bigarren deialdi bat egiteko eta nazioarteko helmugetan erabili ahal izateko –Espainiako Ganberak Parisen eta Milanen–.

Beka horiek Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren helburuetako bat betetzen dute: bere programen bitartez Euskadiko merkataritza-sektorearen gaikuntza, prestakuntza eta profesionalizazioa sustatzea. Horretarako, programa honen xedea da kudeaketa profesionalaren arlo desberdinetan profesional kualifikatuak sortzea.

Bekaren aldia bederatzi hilabetekoa da, ikasturte bat alegia, eta EAEko merkataritzako enpresetan, Merkataritza Ganberetan edo Merkataritzako Bulego Teknikoetan emango da prestakuntza.

Prestakuntza-plana garatzeko izango dira praktikak, hauek barnean direla: merkataritzako aholkularitza teknikoko lanak, merkataritzarekin lotutako azterlanak, dinamizaziorako ekintzak bezero posible gehiago erakartzeko, merkataritzako enpresen lehiakortasuna handitzen lagunduko duten ekintzak eta beste ekintza tekniko batzuk.



## Kultura eta Hizkuntza Politika

### **EUSKADIK, NAFARROAK ETA ERRIOXAK *ERRIOXAKO ARDOAREN ETA MAHASTIEN PAISAIA-REN HAUTAGAITZA MUNDUKO ONDARERAKO ELKARREKIN SUSTATZEA ADOSTU DUTE***

- **Hiru gobernu autonomikoen, lehenengoz, jendurrean agertu dute UNESCOn hautagaitza-proposamen berria egiteko borondatea**

Eusko Jaurlaritzak, Nafarroako Gobernuak eta Errioxako Gobernuak adostu dute *Errioxako Ardoaren eta Mahastien Paisaiaren* hautagaitza munduko ondareerako elkarrekin sustatzea. Horretarako, hiru gobernuak lankidetzaren protokoloa sinatuko dute; gaur Gobernu Kontseiluaren oniritzia jaso dute.

Testuan, hiru gobernu autonomikoen jendurrean agertu dute, lehenengoz, *Errioxako ardoaren eta mahastien kultura-paisaiaren* hautagaitzarako proposamen berria elkarrekin prestatzeko borondatea, UNESCOren munduko ondarearen zerrendan sartzeko eta, horrela, 2016tik adituen talde bat hautagaitza formulatzeko egiten ari den lanari segida eta sustapena emateko.

*Errioxako ardoaren eta mahastien kultura-paisaiaren* hautagaitza 2015ean aurkeztu zitzaion UNESCOren Mundu Ondarearen Batzordeari, eta mundu-ondarearen zerrendan sartzeko erabakia hartu zuen eta, horrela, hautagaitza berriro formulatzeko aukera zabalik utzi zuen, Batzorde horrek berriro ebaluatzeko.

Gaur onetsitako protokoloak aditu-talde bat sortzea aurreikusten du; aditu horiek proportzioan izendatuko ditu hiru autonomia-erkidegoetako bakoitzak, eta taldea proposamen berriaren txosten teknikoa prestatzeko arduraduna izango da.

Era berean, testuak autonomia-erkidego bakoitzeko hiru ordezkariak eratu dute erakundearen arteko batzordea sortzea aurreikusten du; batzorde horrek erkidegoek hautagaitza berriaren izango duten parte-hartzea koordinatuko du.

## Kultura eta Hizkuntza Politika

**EUSKO JAURLARITZAK, BARAKALDOKO UDALAK ETA BILBOKO  
PORTU AGINTARITZAK EKINTZAK BURUTUKO DITUZTE BARAKALDOKO  
MEA-KARGALEKUAK ZAHARBERRITZEKO ETA BEREN BALIOA  
NABARMENTZEKO**

- **Gobernu Batzordeak lankidetzeta-protokolo berri bat onartu du arautzeko elementu horien inguruan egingo diren ekinbide guztiak, industria-ondarearen ikuspegitik balio handia baitaukat**

Eusko Jaurlaritzako Gobernu Batzordeak, bere gaurko saioan, onetsi du Jaurlaritzaren, Barakaldoko Udalaren eta Bilboko Portu Agintaritzaren arteko lankidetzeta-protokolo berri bat Barakaldoko mea-kargaleku zaharren inguruan. Protokoloaren helburua da kargaleku zahar horiek ezagutarazi, birgaitu, kontserbatu eta zaintzea, elementu horien balioa nabarmenduz eta industria-ondarearen garrantziaren gainean sentsibilizatuz.

Protokoloa sinatu duten hiru erakundeek apirilaren 4an eman zuten ezagutzera akordioa; Gobernu Batzordearen gaurko onespeneren ostean lankidetzeta honek bidea egin ahal izango du. Protokoloak ekintza eta helburu zehatzak jaso ditu kargalekuen balioa, ondarearen ikuspegitik, nabarmentzeko:

- Nerbioi itsasadarrean kokatutako mea-kargaleku zaharren berezitasun eta garrantzi historiko/artistikoa edota arkitektonikoa aztertzea, batez ere Orconera, Sefanitro y Cía eta Franco Belga izenekoena, baita bideragarritasun teknikoak eta ekonomikoak ere, egin behar izango zaizkien birgaitze- eta kontserbazio-lanen arabera.
- Aipatutako analisi instituzional bateratu horren emaitzaz, bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa barnean direla, gai horretan eskumena duen Estatuko Administrazio Orokorreko organoaren aldetik, egokitzen diren kasuetan, kargaleku horien eta horietako baten berezitasun eta garrantzi historiko/artistikoaren edota arkitektonikoaren aintzatespena sustatzeari ekitea.
- Espainiako Ondare Historikoaren ondasun higiezinak birgaitu, kontserbatu edo aberasteko lanak finantzatzeko aurreikusitako laguntzak tramitatzea, Kultura eta Kirol Ministerioak kudeatutako “kulturarako % 1,5a” programaren barruan; laguntza horien zati bat Bilboko Portu Agintaritzak ordaintzen du berak sustatutako portuko obren urteko inbertsioen bitartez. Izan ere, 16/1985 Legearen 68.1. artikulua eta bere garapen partzialerako urtarrilaren 10eko 111/1986 Errege Dekretuaren 58.1. artikulua ezarritakoaren arabera, aipatutako Programatik datozen dirusarrerak Espainiako Ondare Historikoa kontserbatu eta aberasteko lanak finantzatzeko izango dira, edo sormen artistikoa sustatzeko, “obrari berari edo bere gertuko inguruneari lehentasuna emanez”.

- Adierazitako ondasunen lagapen edota ustiapenerako eta udal kudeaketarako formulak aztertu eta ezartzea, birgaitu ondoren, portuko zerbitzuen eremuan, Estatuko Portuei eta Nabigazio Zibilari buruzko Legearen Testu Bateratuaren arabera eta Administrazio Publikoen Ondareari buruzko Legerian jasotako aurreikuspenekin bat etorritik, udalerriko kudeaketen eremuan kargaleku horien kontserbazioa eta Barakaldoko herritarrekiko elkarrekintza bultzatzearen.
- Behar izanez gero, portuko edota udaleko plangintza-baliabideak aldatzeko tramiteak hastea, portuko ondasunen balizko desafektazioa barne, udal kudeaketaren menpe gera daitezkeen.

Mea-kargaleku zaharrak, Barakaldoko udalerrian kokatuak, Rontegi zubiaren inguruan daude, ibaian gora eta behera. Gehienak interes historiko/artistiko edota arkitektonikoko instalazioak dira, eta Bilboko Portuaren eremuan daude kokatuta, Portuak bere zerbitzuak eskaintzen dituen inguruan. XIX. mendean 23 kargaleku zeuden Olabeagatik oraingo La Benedicta kairaino, Itsasadarraren inguruan zegoen meatzaritza- eta esportazio-jarduera handiari erantzuteko. Trenbideko garraioak, baita ontzietako zamalan-premiekin eta mareekin ere, kargaleku berezi bat definitu zuten, Itsasadarraren mugak karakterizatu eta itxuratu zituen, eta horrela eratu zen karga eta balio historiko handiko paisaia-konposizioa, nortasun nabarmena duena.

Euskal Kultura Ondarearen Inbentario Orokorra multzo monumental kategorian hartzen ditu barnean Barakaldoko mea-ontziralekuak eta -kargalekuak (2016ko irailaren 12ko ebazpena). Protokoloak honako kargaleku hauei eragingo die:

- Franco-Belga konpainiaren kargalekuak hiru ziren eta 1886koak dira. 3. zenbakiduna deitzen zaiona bakarrik kontserbatzen da; su hartu ondoren 2002an zaharberritu zuten. Zenbait konpainiaren ekimenez eraikitako kargaleku bakanetako bat da eta bere jatorrizko elementu ugariarekin iritsi da gure garaira. Galindo ibai-ahotik gertuen mantentzen dena da. Kargalekuak XX. mendeko laurogeiko hamarkadara arte egon ziren jardunean, jabe desberdinekin.
- Orconera Iron Ore Company Limited konpainia Europako siderurgia-enpresek 1871 eta 1876 artean Bizkaian sortutako meatzaritza-enpresa filialetatik garrantzitsuena izan zen. 5 izan ziren eraikitako zamalanetako kaiak, guztiak antzeko ezaugarriekin. Gaur egun, haietatik guztietatik 5. zenbakidun kargalekua kontserbatzen da (1876an eraikia) eta ia osorik mantentzen da bere egitura. Gainerako kargalekuetatik (3. zk. eta 4. zk.) ur gainera azken muturreko goi-habeak geratzen dira bakarrik, baita oholtzaz eratutako kaien hondakinak ere, zurezko oztopo-zutoinen gainean. Orconera konpainiaren burdin mearen kargalekua, Gateshead-eko Dunston Staiths konpainiarenarekin batera (harriatzarena), XIX. mendeko zurezko egitura murgildua duten bi kargaleku bakarrak dira, ustez munduan zutik geratzen diren bakarrak.
- Sefanitro konpainiaren kargalekua egitura garai bat da eta trenbideen pasabidea salbatzen du. Ondoren egindako eraikuntza bat da eta

1941an sortutako Sociedad Española de Fabricaciones Nitrogenadas, S.A. enpresari lotzen zaio. Enpresak eraikin-multzo handi bat garatu zuen, Germán Agirre eta Hilario Imaz arkitektoek diseinatuak. Eraikinek mugimendu modernoaren ezaugarriak gehitzen dituzte, baita arkitektura arrazionalista espresionistaren irizpideak ere. Konplexu industrial eta Itsasadarreko zamalanerako gunea lotzen zituen kargalekuaren estilo arkitektonikoa erabakitzailerak izan zen.

## Gobernanza Pública y Autogobierno

### GOBIERNO VASCO ACTUALIZA LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO PARA MEJORAR, CON 4,5 MILLONES DE EUROS, LAS RETRIBUCIONES DEL PERSONAL PÚBLICO VASCO

- Se da cumplimiento, así, al [acuerdo](#) firmado con los sindicatos de la “*Mesa Sectorial de la Administración General de Euskadi*” para actualizar la valoración y retribución de 436 puestos de trabajo
- El acuerdo tiene efectos retroactivos desde el 1 de enero de 2010 y las personas beneficiadas cobrarán los atrasos en dos pagos los próximos meses de noviembre de 2019 y mayo de 2020

El Consejo de Gobierno ha aprobado, hoy, la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo (RPT) de los departamentos y organismos autónomos para dar cumplimiento al [acuerdo](#) alcanzado el pasado 2 de abril con la mayoría sindical representada en la “*Mesa Sectorial de la Administración General de Euskadi*”. El [acuerdo](#) supone la actualización de 436 puestos de trabajo, con retroactividad a 1 de enero de 2010, una mejora retributiva presupuestada en 4,5 millones de euros.

Firmado con 3 de los 4 sindicatos con representación en la Administración General de Euskadi (LAB, CCOO y UGT), este [documento](#) pone fin a la negociación mantenida durante meses, entre el Gobierno Vasco y las centrales sindicales, para ordenar y actualizar la RPT de Lakua:

- 368 puestos de personal laboral de la Administración General de Euskadi.
- 22 puestos de personal funcionario de la Administración General de Euskadi.
- 46 puestos de trabajo procedentes de la antigua sociedad pública “*Itsasmendikoi*”, fusionada con HAZI, la sociedad pública de desarrollo rural, litoral y alimentario de Euskadi.

## NOVIEMBRE

Una vez modificada la RPT, el Gobierno dará, ahora, los siguientes pasos para poder hacer efectivo el primer abono de las subidas retributivas, el próximo mes de noviembre. Tal y como acordaron el Gobierno y los sindicatos en la mesa sectorial del pasado 2 de abril, el segundo pago se realizará en mayo de 2020.

## Empleo y Políticas Sociales

### EL GOBIERNO VASCO DEDICA, A TRAVÉS DE LANBIDE, 19,3 MILLONES DE EUROS A ACTIVIDADES FORMATIVAS Y PROMOCIÓN DEL EMPLEO

- **3 millones de euros a las acciones formativas con compromiso de contratación dirigidas a trabajadores y trabajadoras desempleadas**
- **2,3 millones de euros el programa HEZIBI de formación y trabajo en alternancia para jóvenes**
- **10 millones de euros a acciones locales de promoción del empleo dirigidas especialmente a zonas y municipios desfavorecidos**
- **Lanbide impulsa con 4 millones de euros el desarrollo de Proyectos Singulares de inserción socio-laboral para personas trabajadoras ocupadas y desempleadas con dificultades de acceso al empleo o mantenimiento del mismo**

El Departamento de Empleo y Políticas Sociales del Gobierno Vasco dedica, a través de Lanbide, **19,3 millones de euros** a actividades formativas a personas ocupadas y desempleadas y promoción del empleo que se suman a distintas iniciativas puesta en marcha en el último año.

